

«Agintea berari kendu eta oso oldarkor jokatzeari izango da gakoa»

JOKIN ALTUNA
PILOTARIA



Azaroaren 19an jokatu du amezketarrak Lau eta Erdiko Txapelketaren finala Peio Etxeberriaren aurka; «oso zaila» izango dela, eta horrek asko motibatzen duela aitortu du // 7

%2,5eko igoera izango dute zergek eta tasek

Tolosako Udalaren azken osoko bilkuran zerga, tasa eta prezio publikoak adostu dituzte // 4



A25aren harira antolatutako ekitaldiak aurkezten, eragile nahiz elkarteetako kideak. JOSU ARTUTXA

Herritarrak kontzientziazteko ekitaldi sorta

Indarkeria Matxisten Aurkako Egunaren barruan antolatu dituzten ekitaldien artean, ikusgai da Euskal Herriko 20 artistaren 40 lan jasotzen dituen 'Muttertum' erakusketa // 3

TOLOSAN

Zuatzu Klinika da zure konfiantzazko klinika

Ginekologia

Haurdunaldia eta erditzea

Jaio aurreko diagnostikoa eta fetuaren medikuntza

Irune Alzola doktoreak astelehenetan ematen dizu arreta 15:00etatik 19:00etara

Eskatu zure hitzordua
Zuatzu Tolosa, Laskorain kalea, 16 (behegaina) - 943 506 090

ZUATZU KLINIKA

16 urte
Tolosan

clinicazuatzu.com

ORIA BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79
www.funerariaoria.com

Zinkunegik alkatetzan lehen aldia badu ere, aurretik zinegotzi izan zen Bidania-Goiazko Udalean. Zazpitik bost zinegotzi lortu dituzte, eta talde berriak herrian «oso harrera ona» izan duelakoan dago alkatea. Datozen lau urteetara begira, herriko «gazteen nahiak» asetzea dute helburu, baina «gainerako herritarrak ere ahaztu gabe».

Aitor Arroyo Askarai
Bidania-Goiaz

Aurretik zinegotzi izan bada ere, lehen aldia izango du alkatetzan Juan Inazio Zinkunegik (Bidania-Goiaz, 1958). Talde berriak «oso harrera ona» izan duela aitatu du, eta datorrenari heltzeko «ilusioz eta gogotsu» azaldu da. Aurrera begira herriko gazteen nahiak betetzea dute helburu, baina «gainerako herritarrak ere ahaztu gabe».

Lehen agintaldia izango duzu. Nola sentitzen zara datorrenari heltzeko?

Alkate bezala aurreneko legealdia dut, baina gaztetan zinegotzi ere aritu nintzen. Ilusio handiz eta gogotsu nago. Oso emaitza onak jaso genituen hauteskundeetan; taldea osatu zen hiruzpalau hilabetetan, zazpitik bost zinegotzi atera ditugu, eta oso harrena ona izan du. Horrek ere ematen dit ilusioa. Eta gogo faltarik ez dut, saltsa beti gustatu izan zait.

Maila pertsonalean nola darazazu alkate izatea?

Lantokia utzita egon arren, betidanik gustatu izan zait herrigintzan inplikatzeko. Momentu ho-

«Ilusio handiz eta gogotsu nago»

JUAN INAZIO ZINKUNEGI BIDANIA-GOIAZKO ALKATEA

Etorkizunera begira helburu dute herriko «gazteen beharrak» asetzea, hala nola, etxebizitzak eta kirol instalazio hobekak izatea



A. ARROYO ASKARAI

ere, herriko gazteen nahiak betetzen saiatuko gara, hala nola etxebizitza propiorako aukera, kirol instalazioak... Nahiko eskasak dira, eta egoera kaxkar samarrean daude. Ari gara azterketa batzuk egiten eta hobetzen saiatuko gara. Hori dena, noski, gainerako herritarrak ere ahaztu gabe.

Bidania-Goiazko herriguneak osatu eta txukundu nahiko genituzke. Goiatzen, esate baterako, garai batean eskola zein eraikinean komun publiko bat jarri nahi dugu, eta Bidaniko plaza ere txukunketa on baten beharrean dago. Bi horiek, behintzat, oso aintzat hartuko ditugu.

Zeintzuk dira legealdi honetarako proiektu nagusiak?

Gure herri programa hor dago, aurkeztu genuen; eta hori betetzea gustatuko litzaidake. Batez

Zein zailtasun aurreikusten dituzue datozen lau urteetan?

Zailtasunak beti egongo dira. Herriko bideen inbentarioa mar txan jarrita dago, eta ondo bukatzeko zailtasun bat edo beste egongo da. Ahalik eta zailtasun gutxien edukitzea gustatuko litzaidake, eta ea hala izaten den. Esan beharra dago zazpi zinegotzirekin osatutako udala dela hau, eta denak independenteak dira. Zazpi buru dira, bakoitza bere ideiekin. Guztiak hartu behar dira aintzat, eta hori bera nahiko erronka potoloa da. Oso giro onean hasi gara, eta legealdia horrela bukatzea gustatuko litzaidake.

Zer eskatuko zenieke herritarrei?

Ez zait asko gustatzen herritarrei eskatzea, baina zerbait esatekotan parte hartzeko eskatuko nieke. Udalarekin neronek beti eduki dut agian interes gehixeago, baina bakoitzak ahal duen horretan eman dezala berea. Eta ez dezatela erreparorik izan bertara azaltzeko ere. Udaletxe hau bidaniarrek eta goiaztarrek osatzen dugu, denon udala da eta denon beharra du aurrera egiteko.

Jauregi Handiko eremuan hitzarmena

Ostegunean bilera irekia egingo dute kultur etxean hitzarmenaren nondik norakoak azaltzeko

Erredakzioa Amezketako

Jauregi Haundiko hirigintza-eremua «egokitzeko» eta bidegorrirako eranskina botatzeko hitzarmena sinatu du Amezketako Udalak gaur egungo jabeekin. Hitzarmen berrian adostu dute plan partzial bat egitea uholde arriskuko eremuan dauden etxeak lekuz mugitzeko eta hirigintza eremua moldatzeko.

Udaletik azaldu dutenez, hirigintza eremu berritu hori hiru fasetan garatuko litzateke eta hurrengo 15-20 urtetarako Amezketako «etxebizitza berrien beharrak aseta geldituko lirateke». Lehen fasean aurreikusten dute lur azpiko garajedun 21 etxebizitza libre eta 12 etxebizi-

tza tasatu egitea, eta udalak helburutzat jarri du legealdi honetan lehen fase horretako obrekin hastea.

Ostegun honetan bilera egingo dute prozesuaren faseak eta hirigintza hitzarmenaren nondik norakoak azaltzeko: «Plan partzial hau onartzeko prozesua luzea da, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako hainbat arlotatik pasa behar baitu». Bilera kultur etxeko areto nagusian egingo dute, eta 19:00etan hasiko da.

Bidegorrirako lurak eskuratzeko prozesuari dagokionez, berriaz, udalak adierazi du «esku-zabal» jokatu nahi duela ondorioak jasoko dituzten lur jabeekin: «Horren adierazle garbiena da lur-jabe guztiekin adostasuna lortu izana eta, Jauregiko eranskinaren kasuan, eranskin osoa bota beharrean karretera aldera dagoen zatia soilik botatzea adostu dela». Jabeek kalte-ordaina jasoko dute, eta botatzearen kostua udalak ordainduko du.



Hirigintza eremu berria hiru fasetan garatzea dute helburu. ATARIA

AURRETIK DATORREN LANKETA

2006an onartu zuten Plan Orokorra Jauregi Haundiko eremua zehaztu zuen Amezketan etxe berriak egiteko gune nagusi gisa. Garai hartan onartu zen hirigintza jarduketako eremua lotuta zegoen Jauregi Haundi eraikineko eranskina botatzearekin, ber-

tatik bidegorria pasa ahal izateko. Garaiko jabeekin adostu omen zuten etxe berriak egitearen truke eranskin osoa bota beharko zutela kalte-ordainik jaso gabe, eta botatzearen kostua jabeek ordaindu beharko zutela.

Gaur egun, ordea, garatu gabe jarraitzen du «bi arrazoi nagusi-

gatik»: 2008ko krisi ekonomikoa eta Jaurlaritzak onartutako uholdegarritasun legea. «2008ko krisi ekonomikoa pasa bazen ere, bertan aurreikusitako etxe gehienak 100 urteko uholde arriskuko eremuan zeuden, eta proiektua modu horretan ez zen bideragarria».

Hausnartzeko espazioak sortu nahi dituzte

Tolosako Udalak, zenbait eragilerekin elkarlanean, hilaren 25eko Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunari lotutako egitaraua antolatu du

Josu Artutxa Dorronsoro

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunaren baitan, egitarau mardula izango da Tolosan, Tolosako Udalak, Tolosako Asanblada Feministak, E3 Euskal Emakume Eskultoreen Elkarteak eta Evaren Alabak antzerki taldeak antolatuta. «Indarra hartzen ari den eguna da, eta Tolosako emakumeok egun honi ikusgarritasuna emateko eta herritarrak eta gizartea kontzientziatzeko ahalegin handia egiten dugu. Horrelako ekitaldien bitartez, hausnartzeko espazioak sortu nahi ditugu, urtetik urtera geroz eta biktima gutxiago izan ditzagun», esan du Goiuri Eceiza Tolosako Udaleko berdintasun zinegotziak.

Azaroaren 25aren inguruko egitaraua euskal emakume eskultoreen erakusketarekin hasi zen, ostiralean. Euskal Herriko 20 artistaren 40 lan jasotzen dituen *Muttertum*. *Euskal Emakume Eskultoreak* erakusketa kolektiboa inauguratu zuten, eta lan horiek abenduaren 9ra arte egongo dira ikusgai, Aranburu Jauregian. Asteartetik larunba-

tera, 17:30etik 20:30era, izango da erakusketa bisitatzeko aukera; jaiegunetan itxita egongo da.

E3 elkarteak handitzen doala adierazi dute bertako kideek 2021ean sortu zuten eta Barakaldon jarri zuten ikusgai lehen erakusketa: *Zubiak Ehuntzen*. Orain, bigarren bilduma ezagutaraziko dute. «Sinergia asko sortu dira artista guztien artean. *Muttertum* kontzeptua historiaurretik dator, baina gaur egun oso presente dagoen zaintzaren eta elkartasunaren gaiari egiten dio erreferentzia. Sinbolikoki pisu handiko hitza delako erabaki dugu erakusketari izen hori ematea», adierazi zuten.

Elkarteko kideek aitortu dute: «oso zaila» izan da lanak aukeratu eta arrazoi jakin batekin erakusketan zehar kokatzea. «Adierazterako garaian, egile bakoitzari aske izaten utzi diogu. Lan guztietan gaur egun ezin bestekoa den aldarrikapena da errepikatzen den kontzeptua. Batzuek mezu argi eta zuzenekin transmititzen dute aldarrikapen hori. Beste batzuek, berriz, mezu zorrotzak erabiltzen dituzte. Lan sotilak eta leunak diruditen



Tolosako Asanblada Feministak aterki morez apaindu du Berdura Plaza. J. A.

arren, gazi-gozoak ere badira», adierazi dute.

Elkartearentzat erakusketa oso garrantzitsua dela nabarmendu dute, «artisten arteko oreka horren baitan bizitzeko beste modu bat dagoela adierazten duelako». «Balio dezala herritarrak kontzientziatzeko, non gauden, gaur egungo errealitatea zein den eta zer nahi dugun benetan jakiten laguntzeko. Indarkeria ontzat hartzen du gizarte osoak, batez ere gazteek, baina

ezin dugu halakorik onartu», gaineratu dute.

Muttertum, ordea, ez da erakusketa soil bat; bestelako ekin-tzak ere egingo dituzte bertan. Esaterako, azaroaren 15ean (euskaraz) eta 22an (gaztelaniaz) bisita gidatuak eskainiko dituzte, bi ahotsetako poema irakurketekin lagunduta; 19:00etan izango dira bi saioak. Horiez gain, ikastetxeei eskainitako bi bisita gidatu ere egingo dituzte, hilaren 23an, 10:00etatik 11:00etara eta

11:30etik 12:30era. Bisita gidatuak ez ezik, tailerrak ere egingo dituzte; etzi, ostiralean, izango dira, 18.00etan hasita, eta parte hartzeko beharrezkoa da aurrez izena ematea, berdintasuna@tolosa.eus helbide elektronikora idatziz.

Bestetik, iragan larunbatean, Evaren Alabak taldearen *Ring* antzezlanak ikusteko aukera izan zen, Aranburu Jauregian bertan. Aurrerago Alkizan egingo dute emanaldia, eta Tolosarako bezala, bertarako ere dagoeneko agortu dira sarrerak.

Atzo, berriz, Tolosako Asanblada Feministak antolatuta, *Alokairu sabelak* hitzaldia eskaini zuen Garbiñe Biurrunek, Topic-en. Biurrunek gaiaren inguruko datuak, zenbait egoera eta ondorioak aurkeztu zituen eta hitzaldia amaitutakoan publikoak galderak egiteko aukera izan zuen.

Azkenik, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunean, hilaren 25ean, Triangulua plaza izango da aldarrikapenerako gunea, 19:00etan manifestazioa egingo baitute, Tolosako Asanblada Feministak deituta. Ondoren, Numen dantza taldeak saioa egingo du; Euskal Emakume Eskultoreak taldeak, berriz, *Indarkeria sexistaren aurkako litaniak performance-a* eskainiko du.

Hilberriak eta urteurrenak

Ataria jarrita
Urola Kostako eta
Goierriko Hitzetan
DOAN

hilberriak
eskertzak
urteurrenak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenara 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



Santi Iparragirre Telleria

-GB-

BETI IZANGO ZARA GURE
OROIMENEAN ETA
BIHOTZEAN



AMPOKO LANKIDEAK

IDIAZABALen, 2023ko azaroaren 8an.



Santi Iparragirre Telleria

Azaroaren 5ean hil zen 57 urterekin,
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-GB-

Emaztea: Edurne Gorospe; alabak: Irati, Maddi; gurasoak: Benito eta M^a Jesus; ezkon gurasoak: Joxe Gorospe eta Pilar Telleria; anai-arrebak: Juan M^a eta Josebe Aranburu, Jone eta Ina Diez; ezkon anai-arrebak: Xabi eta Luci Dias; ilobak: Eritz, Aritz, Heldai, Maialen, Aner; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak, otoitz bat eskatzen dizue bere arimaren alde eta GAUR ASTEAZKENA arratsaldeko ZAZPIETAN MIKEL GOIAINGERUAREN Parroki Elizan egingo den hileta-elizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko aldeztu aurretik.

Helbidea: Etxalar Etxea
Oharra: Gorpua Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da
GAUR ASTEAZKENA 10:00-13:30 eta 15:30-18:00.

IDIAZABALen, 2023ko azaroaren 8an.



Santi Iparragirre Telleria

-GB-

Eskeini diguzun maitasuna,
zaintza,
gertutasuna eta umoreagatik,
maite zaitugu aita.
EDURNE, IRATI, MADDI

IDIAZABALen, 2023ko azaroaren 8an.

HAPOaren aldaketa puntualaren inguruko saio irekia, gaur

Ospitale berria eraikitzeko Plan Orokorren aldaketa hasi zuen Tolosako Udalak eta gaur izango da lehen faseko parte hartze saioa

Erredakzioa

Tolosako Udalak Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) aldaketa puntuala jarri zuen abian, Iurre eremuan, ospitalea eraiki ahal izateko. HAPOa aldatzeko lan osoa lau fase-tan banatzen da, eta gaur, lehenengo fasearen barruko parte hartze saioa gauzatuko du udalak, herritarrentzat saio ireki bat eginez. Udaletzeko udalbatza aretoan izango da, 19:00etan hasita.

Lehen fasean ingurumen-ebaluazioarekin hasteko eskabidea, ingurumen-dokumentu estrategikoa eta plan orokorraren aldaketa idatziko dituzte. Herritarrek parte hartzeko lehenengo bilera irekia fase honetan egingo dute, eta gaur izango da. Hala, dokumentua idazten hastearrekin batera diagnostiko tekniko osatzeko tolosarren ekarpenak jasotzea izango da hitzorduaren helburua.

Herritarrek parte hartzeko bigarren bilera irekia bigarren fasean egingo dute. Saio horretan hasierako onespeneko hirigintza-dokumentuaren aurkezpena egingo dute. Jarraian, hirugarren fasean, behin-behineko onspena emango diote dokumentuari eta alegazioen balorazioa egingo da, baita txosten sektorialen azterketa ere. Laugarren eta azken fasean, behin betiko onspena jasoko du dokumentuak.

2024ko ordenantza fiskalak onartu ditu Tolosako Udalak

Zergek eta tasek %2,5eko igoera orokorra izango dute, salbuespenak salbuespen; bestetik, 150.000 euro bideratuko dira etxez etxeko zaintza zerbitzua indartzera

Josu Artutxa Dorronsoro

Urriko osoko bilkuran egin ohi den moduan, datorren urterako zerga, tasa eta prezio publikoak izan ditu eztabaidagai Tolosako udalbatzak azken bilkuran. Bada, KPIa eta inflazioa kontuan hartuta, ordenantza fiskalek %2,5eko igoera orokorra izatea onartu dute. Badira, orde, salbuespenak. Jabari publikoaren erabileraren atalean, esaterako, Belena patioko bizikleta aparkalekuari dagokiona da nabarmenena, jaitsi egingo baita bizikleta bertan gordetzeagatik ordaintzen den urteko kuota.

Gauzak horrela, eta %2,5eko jaitsiera aplikatuta, urtean 66,44 euro ordaintzetik, 45,45 euro ordaintzera igaroko dira Alde Zaharreko bizilagunak. «Orain arte bizikleta gordetzea auto baterako bertakoen txartela eskuratzea baino garestiagoa izan da. Mugikortasun jasangarria sustatzeko helburuarekin bat eginda, honek ez luke horrela izan behar. Aurrerago ere aztertuko dugu bestelako trataerarik beharko ote lukeen», azaldu du Esti Kortejarena ogasun zinegotziak.

Larunbateroko azokan parte hartzen duten ekoizleen zergak edota eraikinak konpontzeko jartzen diren aldamioengatik ordaintzen diren tasak izoztea ere erabaki dute. Prezio publikoen kasuan, tolosarrei ez ezik, gainerakoei ere prezio berak aplikatuko zaizkie.

Iaz, EAJk proposatutako igoeren aurka azaldu zen EH Bildu,



AGHN Egunarekin bat egin du udalak urriko osoko bilkuran. TOLOSAKO UDALA

tasa eta zerga guztiak izoztea proposatuz, eta aurten alderdi jeltzaleko zinegotziak haserre agertu dira: «Zer aldatu da urte batean, zuen ordenantza fiskalaren proposamena iaz guk aurkeztu genuaren ildotik joateko, alegia, tasak eta zergak izoztu beharrean, hartu eta 2024rako igoera orokor bat proposatzeko?».

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren kasuan, berriz, igoera %1ekoa izango da, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak balio katastrala ere eguneratuko du. Biak kontuan hartuta, %2,5ean eguneratuko da zerga hau, eta hiri ondasuneko higiezinetan soilik aplikatuko da, hau da, landa eremua eta industriaguneei ez zaie halakorik aplikatuko.

Etxebizitza hutsek errenergia izaten dute zerga honen kasuan, eta errenergia hori bikoiztea onartu du udalak. Hamalau sal-

buespen daude errenergia hori ez ordaintzeko, gainera, eta horietako batean ere aldaketa aplikatuko da. «Inor erroldatuta ez dagoen etxebizitzaren ia %70ak ordaintzen du errenergia, eta hortaz, modu honetara eragin nahiko genuke hutsik dauden etxebizitza kopurua jaisteko», adierazi du Kortejarenak.

Hain zuzen, etxebizitzaz luze eta zabal eztabaidatu dute bilkuran, EAJk eta EH Bildu aurkeztutako mozio banaren harira. Azken hau onartu zen, hain zuzen, Etxegabetzeak Stop plataformak sinatutakoa, udal gobernuaren eta PSEren aldeko bozkekin. Ander Figuerido etxebizitza saileko arduradunak adierazi zuenez, Espainiako Etxebizitza Legea tresna bat gehiago da etxebizitza politikak egiteko. «Lege honek marko juridikoa jartzen du, eta orain guk arau propioak garatu behar ditugu, 2015ean Eusko Legebiltzarrean onartutako legea, hain justu. Hau bere osotasunean garatzeko, baina, 8 urte itxaron behar izan dugu etxebizitza eskubide subjektiboa arautzeko dekretua onartu den arte».

ETXEZ ETXEKO ZAINTZA

Zenbait kreditu aldaketa ere hizpide izan dira. Adibidez, 150.000 euro gehiago txertatuko dituzte etxez etxeko laguntza zerbitzuentzat, eskaerak duten intentsitatea eta onuradunen beharrak asko igo direla ikusirik.

Bi diru laguntza ere onartu dituzte, baita horiek egin ahal izateko kreditu aldaketak ere. Bate-tik, 20.000 euro bideratuko ditu udalak Oargi elkarteak rokodromoa konpontzera, «tolosar guztiei irekitako espazioa baita». Bestetik, Samaniego Ikastetxearen urteurreneko ekitaldien antolaketarako beste 20.000 euroko laguntza eskainiko du udalak. Gainera, udal langileen ordain-sarien bigarren igoera aplikatzea ere onartu dute.

Azkenik, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzearen Arautegia

EH Bilduk etxebizitzaren inguruan aurkeztutako mozioa onartu zuten, PSEren babesarekin

aldatzea ere onartu du udalbatzak, mugikortasun murriztua duten erabiltzaileen laguntzaileei doakotasuna zabaltzeko. Garraio Agintaritzaren Batzar Nagusiak ekainean onartu zuen aho batez aldaketa hori, eta orain partzuergoko kide bakoitzak onartu behar ditu aldaketa hauek.

UDAL GOBERNUAREKIN KRITIKO

Oposizioko alderdiek Tolosaldeko Mankomunitateko Lehendakariaren dedikazio eskusiboa kritikatu dute, baina EH Bilduren ustez erabakia baliagarria izan daiteke Tolosaldea indartu eta zerbitzuen karta handitzeko. «Ikusi dezagun hartutako erabakiak eta egingo den lanak ezarritako helburuak lortzen dituen, eta utz ditzagun kritika horiek, beharrezkoak badira, aurreragorako», adierazi du Andu Martinez de Rituerto alkateak.

Bestetik, Usabal kiroldegiko greba dela eta, kirol klubei sortarazten ari zaizkien kilometraje eta alokairurako gastuak diruz ahalik eta lasterren laguntzeko eskaera egin du alderdi jeltzaleak, eta beharrezkoa izanez gero, premiazko neurriak hartzea exijitu du.



zozketak

Atarikideentzat **musika bilduma** dugu



HABI taldearen diskografia

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

BIDASOA 2018-2023 dokumentala

Azaroak 14, igandea
19:30ean
Villabonako Gurean



Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

Sanmartinak ospatzeko prest

Amasan festak ospatuko dituzte gaur hasita; Alkizan asteburua hartuko dute ekitaldiek, eta Amezketan, berriz, erretirodunen eguna eta azoka egingo dituzte

Jon Miranda

Esaera zaharrak dio: «San Martin, negua atzetik edo aurretik, gehienetan bietatik». Domu santu egunarekin batera, San Martin izaten da udazkeneko hitzordu garrantzitsuenetakoa. Udako uzta berrira arte bizigaiak lortzeko errituekin dute zerikusia San-Martin egunaren bueltakoek.

Alkizan, adibidez, mantendu dute tradizioa eta aurten ostiralek hasita igandera bitartean ekitaldiak egingo dituzte. 2008an txerri hiltzearen inguruko ohitura berri zuten Alkizan

eta orduko hartan Xabier Artola herritarrak egindako argazkiak ikusgai izango dira egunotan Zizurkilgo Plazida Otañoko liburutegiko erakusleihoan.

Bide batez, Amasako San Martin festen ingurukoak ere jasoko dituzte. Nahia Ruiz eta Saioa Zabalak 2018an eta 2022an ateratako argazkiak dira, eta bertan, nagusiki amasarren oilasko jokoa jasotzen da. Bihar berrituko dute tradizioa baserriz baserri eta oilasko biltzen aritu ondoren, elkarrekin bazkaldu eta arratsaldean egingo dute soka-dantza Amasako plazan.

Jai egitaraua, ordea, gaur abiatuko da Amasan. Martina sorgina jaitsi eta igandera arte era guztietako ekitaldiak izango dira, Martina kultur elkartearen bildutako Amasako gazteek antolatuta.

Amezketan ere mantendu dute San Martin eguna ospatzeko ohitura eta izen bereko ermitaren bueltan egingo dituzte larunbatean ekitaldiak. Meza entzun ostean bertsolariek eta trikitilariak alaituko dute goiza eta herriko erretirodunek bazkaria izango dute gero, Beartzana jatetxean.



Martina sorgina Amasako plazan zintzilik iazko sanmartinetan. J.M.

SAN MARTINAK TOLOSALDEAN

AMASA

Azaroak 8, asteazkena

17:30. Umeentzako ipuin kontalaria, Maite Frankoren eskutik.

18:00. Herriko gazteen arteko frontenis finala.

19:00. Txupinazoa eta Martina sorginaren jaitsiera.

Ondoren. Buruhandiak.

Azaroak 9, osteguna

06:00. Gazteen gosaria, Larrea okindegian, trikitilariak alaiturik.

14:30. Gazteen bazkaria, Uxo-Tokin.

17:00. Soka dantza eta aurreksua plazan.

21:00. Gazteen afaria Iturri-goxo jatetxean.

Azaroak 10, ostirala

17:00–19:00. Puzgarriak Amasako frontoian.

Ondoren. Txokolate beroa.

19:30. Amasako XXXI. Bakailu lehiaketa Iturrigoxon.

23:30. Erromeria Muxutruk taldearen eskutik.

Azaroak 11, larunbata

10:30. Meza santua.

11:00. Ume krosa, 6. maila arteko umeentzat.

12:30. Aizkora erakustaldia.

14:00. Herri bazkaria.

18:30. Kantaldia, Jaione Olazabal eta familiaren eskutik.

23:30. Erromeria Laket taldearekin.

Azaroak 12, igandea

18:00. Herri kirolak Amasako herriko gazteen artean.

Ondoren. Martina Sorginari agurra.

ALKIZA

Azaroak 10, ostirala

17:00. Haurrentzat eskuzko pilota tailerra.

Ondoren. Txokolate jatea, guraso elkartearen eskutik.

20:00. Tortilla patata lehiaketa, frontoian, guraso elkarteak antolatuta.

22:30. Mus txapelketa.

Azaroak 11, larunbata

09:30. Altxor bilketa plazan, herriko gazteen eskutik. 6 urtetik aurrera.

10:00. Eskulanak plazan, herriko gazteen eskutik. 6 urtetik beherakoentzat.

11:30. Tela eta slackline tailerra, Oreka Tolosak eskainita.

18:00. Lau eta erdiko pilota finala frontoian.

21:00. Afari herrikoia, Alkizako frontoian.

Azaroak 12, igandea

12:00. Gaztelupe abesbatzaren emanaldia egingo dute, Alkizako elizan.

17:00. Eskoba txapelketa.

AMEZKETA

Azaroak 10, ostirala

20:00. Talo jatea frontoian.

Azaroak 11, larunbata

Erretirodunen eguna

11:30. Meza nagusia, San Martinen

14:00. Bertsolariek eta trikitilariak girotuta, bazkaria egingo dute Beartzana jatetxean.

Azaroak 12, igandea

10:30. Azoka frontoian.

ZIZURKIL

Azaroaren 6tik 13ra

Goiz eta arratsalde. Amasako eta Alkizako sanmartinen inguruko erakusketa Plazida Otaño liburutegiko erakusleihoan *Naturaren erritmoen taupadan* egitasmoaren barruan.

atarikideen
abontailak

BASAJAUN

Deskontu bereziak




MULTIOPTICAS TOLOSA

%15eko
deskontua



ZAP! BIDEOGINTZA

%25eko
deskontua



OREAKO OSTATUA

%5eko
deskontua



ataria.eus/kideak



Osasun sistema berraztertzeke deia egingo dute Donostian

Osasun Publikoaren Alde koordinakundeak larunbaterako mobilizazio deia egin du EAEko hiriburuetan; Donostiako manifestazioa 17:00etan aterako da Bulebarretik

Asier Imaz Tolosa

OPA Osasun Publikoaren Aldeko koordinakundeak osasun sistema publikoaren aldeko manifestazioa deitu du larunbaterako, Donostian, Bilbon eta Gasteizen. Donostiako manifestazioa 17:00etan aterako da Bulebarretik. Javi Arana Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformako eta OPAko kidea da eta esan du aspalditik desegiten ari direla Osakidetza eta beharrezkoa dela kalera ateratzea, «izan ere, dirua lortzeko dauden aukera guztiak pribatizatuta daude: garbiketa zerbitzuak, jangelak, anbulantziak, dialisiak eta laborategiak. Kontua da ez dela nabarmena izan, poliki-poliki egingo dako zerbitzuak. Urte asko daramatzate ahalik eta modu isilenean hemendik eta handik pribatizatzen, eta horrela jarraitzeko asmoa dute».

Aranak gogoratu du apirilean ere herritarrek kalera atera zirela eta Osakidetza arduradunek gertatzen zena zuzenduko zutela esan bazuten ere, dena berdin dagoela, «ez dute ezer egin nahi jendearen arazoak konpontzeko».

Larunbateko deialdiarekin



Osasun publikoaren alde maiatzan egindako manifestazioa. J.A.

hainbat eskaera egingo dituztela esan du Aranak, tartean aurrez aurreko arreta egotea «ez teletelerapia» eta horretarako egungo eredua aztertu behar dela esan du. «Ezinbestekoa da, adibidez, lehen arreta indartzea. Izan ere, gero eta arrakala handiagoa dago lehen arretaren eta espezializazioen artean, zentzu guztietan. Horrez gain, argi dago itxaron zerrenden arazoa ez dutela konpondu pazienteak publikotik pribatura bideratuta».

Era berean, mugimendu feministak aldarrikatzen duen zaintza sistema publiko, duin eta kalitatezkoarekin bat egiten dutela gehitu du mediku ohiak eta ho-

rretarako osasungintzako profesionalekin batera herritarren ekarpenak kontuan hartu behar direla esan du.

Bukatzeko esan du badirela hamabi urte Tolosaldean ospitale publiko baten beharraz hitz egiten dela, eta ez dela ezer egin. «Normalean, garai batean, eskualde batean osasunari lotutako behar handi bat zegoenean, ospitale bat eraikitzen zen bertan. Baina Tolosaldean ez da hala izan: herritarren beharrei erantzuteko Asuncion Klinika publiko egin ordez, pribatuan dirua sartzen jarraitu zuten. Gure kasua izan zen Osakidetza pribatizatzeke lehenbiziko saiakera».

Hilekoari buruz askatasunez hitz egiteko

‘Hilekoa, autoezagutza eta ziklotasuna’ tailerra eskainiko dute Tolosan, Jabetze Eskolaren barruan; 11 eta 14 urte arteko neskei zuzenduta dago eta doakoa da

Zuriñe Iglesias Sarasola Tolosa

Tolosako Jabetze Eskolaren barruan, hilaren 9an eta 16an, *Hilekoa, autoezagutza eta ziklotasuna* tailerra eskainiko du Maialen Mujika Diazek. 11-14 urte arteko neskei zuzenduta dago eta izen ematea irekita dago. Tolosakoudala.org/berdintasuna webgunean egin daiteke, edo berdintasuna@tolosa.eus helbidera idatzita edota 943 67 03 83 telefono zenbakira deituta.

11 eta 14 urte arteko neskek izaten dituzten aldaketen inguruko tailerra da *Hilekoa, autoezagutza eta ziklotasuna*. Maialen Mujika Diazek esan du garai horretan neska askok izaten dituzten zalantzen inguruan ariko dela: «Oraintxe bertan aldaketa prozesu batean nago, ez dakit zer den normala, ez dakit zer ez den normala, bat-batean menarkia dator, eta aurreiritziak daude, bat-batean emakumea naiz, rol hori hartu behar dut, ez dakit prest ote nagoen, ez dakit zer esan nahi duen hilerokoa edukitzeak, ezta nola zaindu nire burua aldaketa horien aurrean...». Bi saio izango dira, hilaren 9an eta 16an,

eta gazte horiei euren burua zaintzen lagunduko die, «euren burua nola zaindu dezaketen entzungo dute eta, batez ere, autonomia izaten lagunduko diet, baita autoestimua aurkitzen eta ahalduzko prozesuan laguntzen ere».

BELDURREI AURRE EGIN

Adituak esan du adin horretan besteen usteek garrantzia handia dutela eta ondorioz, askotan pentsatzen dela bakoitza egokitu behar dela taldera. Ideia horri tiraka barruan dauden beldurrei aurre egiten lagunduko die parte hartzaileei. Azken finean, oso ohikoak diren galderei erantzuten saiatzeko gune segurua sortzen saiatuko dela gehitu du, «helburua askatasunez hitz egitea» baita.

Bestalde, Mujikak adierazi du halako gaiak «askoz ere gehiago» landu beharko liratekeela, eta bereziki, gurasoek izan dezaketen rola garrantzitsua dela nabarmendu du. «Oraindik ere guraso asko daude beldurrarekin beraien seme-alabekin plazaren edo hilekoaren inguruan hitz egiteko».



AZAROAREN 30ERAKO DEIA EGIN DUTE

ELA sindikatuko 200 bat ordezkari bildu ziren atzo, Tolosako Leidor aretoan, batzarra egiteko, eta ondoren manifestazioa egin zuten herrian zehar, azaroaren 30eko greba feminista orokorrarako deia egiteko. Doako zaintza sistema aldarrikatu zuten, «kopagorik gabea eta zergen bidez finantzatzeko dena». Eta hori lortzeko zerga erreforma berria behar dela gehitu zuten. A.I.



A. IMAZ

«Badakit finala oso zaila izango dela eta horrek asko motibatzen nau»

JOKIN ALTUNA PILOTARIA

Peio Etxeberriaren aurka jokatu du Lau eta Erdiko finala azaroaren 19n amezketarrak; agintea aurkariari kentzea eta saketik hasita oso oldarkor jokatzeko izango dela gako dio

Asier Imaz Amezketak

Lau eta Erdiko Txapelketako finala jokatu du hurrengo igandean, azaroaren 19an Jokin Altunak (Amezketak, 1996). Jokatu dituen lehen mailako Lau eta Erdiko guztietan iritsi da finalera. Aurtengoa zortzigarrena izango da jarraian, eta Peio Etxeberria izango du aurkari.

Finalerdia oso gogorra izan zela aipatu zenuen. Nola ari zara osatzen?

Hobeto nago. Atzo [astelehenean] ez nuen asko deskantsatu eta nekea nabari nuen. Masajea ere hartu nuen, eta gaur hobeto nago. Asteleheneko nekea partidaren gogortasunagatik baino tentsio handiko partida izan zelako zen. Horrelako partidak ez dira errazak izaten eta ondorena uzten dute. Beraz, oraindik errekupe ratzen ari naiz.

Sorbaldak nola daukazu?

Atzo [astelehenean] oso mindu-

ta nuen, eta gaur ere bai. Finalerdia jokatzeko erabakia hartu nuenean banekien, irabazi ala galdu, hurrengo egunetan minarekin egongo nintzela. Aurrez nekien gauza bat da. Aste honetan ahal dudan gehien errekupe ratzen saiatuko naiz. Gaur [atzo] ere fisioarengana joango naiz. Ea hurrengo astean entrenamendu onak egiteko gai naizen finalera begira.

Finalerdietara entrenatu gabe joan zinen. Hamabost egun entrenatu gabe, zer sentsazio rekin jokatu zenuen partida?

Sentsazio arraroarekin jokatu nuen. Kezka askorekin jokatu duzu. Pilotan dabilenari pilotan jokatu ez zaiola ahazten esaten da, baina, nahiz eta ariketa fisikoa batzuk egin, frontoian entrenatu gabe konfiantza gutxiagorekin egiten diozu aurre horrelako partida bati. Finalerdia baino bi egun lehenago probatxo bat egin nuen Amezketan,

baina proba hori ere txikia izan zen, besoa ahalik eta gutxien behartzeko. Zorionez, partida ondo joan zen, baina, hori bai, oso gogorra izan zen, eta asko sufritu nuen. Bi edo hiru unetan bazirudien irabazia nuela partida, eta beste une batzuetan, berriz, Erikek irabaziko zuela zirudien. Oso partida azkarra eta eroa izan zen. **Finalerdietan Tolosaldeko hiru pilotari aritu zineten, eta horietatik zu pasa zara finalera. Eskualdeko hiru pilotari egotea eta Artola ere atarian geratzea, zer iruditzen?**

Handia izan da. Jon Ander Peñarekin oso ondo moldatzen naiz, baina pena sentitu nuen Iñaki ez zelako finalerdietara pasa. Izan ere, uste dut oso ondo prestatu duela txapelketa, eta egia esan aukerak ikusten nizkion. Jon Ander eta Erik sartu ziren azkenean. Biak udan oso maila onean aritu dira. Lehen mailan finalerdietan hiru pilotari gipuzkoarrak izatea handia da. Horrek esan nahi du hurrengo urteko txapelketan final-laurdenetako ligaxkan lehiatzeko zuzenean sailkatuta gaudela, beraz, eskualdeko pilotariok gora egiteko aukera izango dugu berriro.

Peio Etxeberriak nahikoa buruko min eman zizun aurreko txapelketetan, eta aurten topera dator.

Niri bezala, pilotari askori. Peio oso aurkari deserosoa da. Azken pausotxo hori ematear zuela denbora bat zeraman. Finalerdietara iristen zen, iristen ez zenean ere oso aurkari zaila izaten zen, Ezkurdia berari ere lehen aldiz aurtan irabazi dio, baina irabaztear izan da askotan, niri ere behin baino gehiagotan irabazi dit, eta beste pilotari askori lan handia eman dio. Udatik ikusten zen oso forma onean zetorrela. Oso pilotari arriskutsua da, eta bere aurka jokatzeko oso desero-

«Agian ez da aukera errepikatuko, asko sufritu bainuen, beraz azkena balitz bezala hartuko dut»

soa da. Beti aurrera egiten du, oso azkar, ezker-eskuin, eta pilotakada deserosoetan ere ondo moldatzen da. Bolearekin min handia egiten du, sakeak eramaten txapelketako onena izan da. Badakit finala oso-oso zaila izango dela, eta aldi berean, horrek asko motibatzen nau. Ilusio handiarekin joango naiz.

Nola egingo diozu aurre?

Ondo prestatu beharko dut partida. Orain arte kantxa erdia berak hartu izan du; Josebaren aurka irabazten erraz joan zen, eta partida horretan ere kantxa erdia berak hartu zuen eta berak mugitu zuen aurkaria. Berak mugitu ditu aurkariak orain arte, finalean aukerak izan nahi badiotut aginte hori moztu beharko dut, agintea berak hartzen badu oso zaila izango baitut. Saketik hasita oso oldarkor jokatu beharko dut, eta bera leku horretatik ateratzen saiatu. Esatea oso erraza da, eta hori gero praktikan jartzea zaila da. Baina, horretan saiatuko naiz topera.

Zortzigarren finala jokatu duzu. Txapela eskatzen zaio pilotariari finalera iristen denean, baina zortzi aldiz finalista izan denari ez dago ezer eskatzerik.

Oso pozik nago orain arte lortu dudan guztiarekin. Atzera begiratzea ez zait gehiegi gustatzen, oraindik 27 urte baititut. Txapelketa bakoitza, bai nik eta nik uste pilotari guztiek, azkena izango balitz bezala hartzen dugu. Niretzat txapelketa hau nola joan den ikusita, lorpen handia da finalera iritsita irabazi egin nahi dut. Azken finean, 27 urte ditut bai, baina, agian ez da aukera hau errepikatuko, asko sufritu bainuen finalerdia irabazteko. Orain, beraz, hurrengo igandeko finalean zentratu nahi dut.

Migel Soroa Txapelketaren partidak, igandean Beotibarren

Laugarren jardunaldiaren barruan, lehen mailako eta elite mailako partidak jokatu dituzte, 17:00etan hasita

Erredakzioa Tolosa

Astebeteko atsedenaren ostean, igandean bueltatuko da Ogi-Berri Txapelketa Migel Soroa Oroimenezkoa. Hain zuzen, laugarren jardunaldia jokatu dute Beotibar pilotalekuan, 17:00etan hasita. Lehen mailako partidak emango dio hasiera, Lizeaga (Mundarro) - Canseco (Titin) biakoak jokatu duelarik Arambarri (Azkoitia) eta Telleria (Lapke) gipuzkoarren aurka. Partida oso irekia dago eta ez dago faborito argirik.

Ondoren, elite mailan Elolak (Tolosa) eta Irazustabarrenak (Intxurre) neurtuko dituzte indarrak Olaetxea (Irurtzun) - Alduntzin (Zugarralde) bikote nafarren aurka. Hori ere oso partida irekia dela azpimarratu dute antolatzaileek. Aipatu Irazustabarrenak, Aizpururen ordezkari jokatu duela, azken honek eskuetan duen arazoa tarteko.

Euskal Herriko Sokatira Txapelketa jokatu da larunbatean

Erredakzioa Ibarra

Larunbatean, hilaren 11n, Euskal Herriko 4x4ko Sokatira Txapelketa jokatu da Ibarra. Bela-bieta kiroldegian izango da, 17:00etan hasita. Bertan erabakiko dira emakumezko eta gizonezko 4x4ko talde txapeldunak.

Hamabi talde lehiatuko dira denera. Emakumezkoetan (250 kilo) bost talde izango dira: Antsoain, Araxes (Nafarroa), Badaioz (Araba), Beti-gazte (Lesaka) eta Ibarra. Gizonezkoetan (310 kilo), berriz, zazpi talde ariko dira txapelaren lehian: Antsoain, Beti-gazte (Lesaka), Ibarra, Murueta A, Murueta B, Zuraide A eta Zuraide B.



ASTEAZKENA, 2023KO AZAROAK 8
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 08

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Eman aurpegi gehiago birziklatzeko puntua, plazan 15:00etan.
Amasa-Villabona. Adinekoen ibilaldia, Erreboteko plazatik 11:00etan.
Amasa-Villabona. Amasako jaiak: 17:30. Ipuin kontalaria. 18:00. Frontenisa. 19:00. Txupinazoa eta buruhandiak.
Amasa-Villabona. Jakin ezazu zein den berokuntza sistemarik egokiena zure etxebizitzarako tailerra. Subijana etxean, 18:30ean.
Irura. Adinekoentzat ibilaldia, San Migel plazatik 11:00etan abiatuta.
Tolosa. HAPOaren aldaketa puntualaren inguruan, herritarrentzat saio irekia, pleno aretoan, 19:00etan.
Tolosa. Mugikorraren erabileraz hausnartzeko guraso taldeen bilkura. Tolosaldea LHan, 18:00etan.
Tolosa. Bira Bidaia. Garbi eta Ander. 250 egun Afrikan... presak etxean utzita!, Bidaiaien txokoa, 19:30ean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.
12:30. Pasahitza. Albisteak.
14:00. Errezetak. Aintzane Artola.
18:00. Desafioa. Herri kirolak.
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza.

28 KANALA

12:30. Landara.
13:30. Tolosaldea Gertutik.
15:00. Elkarriketap.
21:30. Tolosaldea Gertutik.
21:50. Azokatik mahaira (Arrasate).
22:10. Abesbatza lehiaketa.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.
Ignacio
Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2. 943 67 0128.
TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres
Morant. Zabalarretalorategiak, 1.
943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro lasaiagoa.
Goizean ostarte zabalak izango dira eta eguraldi ederra izango dugu. Arratsaldean zehar hodeiak pixkana ugaritzen joango dira, gauean zerua estalirik geratuko da eta gau erdi aldera euritara joko du. Hego-mendebaldeko haizea tarteka zakar ibiliko da eta tenperatura igo egingo da, 14-16 graduan joz goia.

Bihar. Giro kaxkarra.
Goizean goiz eta goizeko lehen orduetan fronte baten eskutik euri zaparrada ederrak izango dira. Eguerdi aldera lasaialdi bat izango du eguraldiak, baina arratsaldean zaparrada batzuk izango dira, nahiz eta, goizarekin alderatuz euri gutxiago egin. Haizeak mendebal/ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura jaitsi egingo da, 12-15 gradu artean joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



PALESTINARREI ELKARTASUNA

Gazako sarraskia gelditu! Ilolean Gernika-Palestina ekimenak herriz herri deitutako mobilizazioen barruan, elkarretaratzeak egin zituzten atzo eskualdeko hainbat herritan, hala nola, Anoeta, Asteasu, Ibarra, Leaburu-Txarama, Tolosa eta Villabona —argazkian—. Urriaren 7az geroztik, Israelak 10.000 pertsona baino gehiago hil ditu Gazan, horietatik 4.000 inguru adin txikikoak. «Berehalako su-etena, eraso guztien amaiera, zibilen bizia eta segurtasuna bermatzea, laguntza humanitarioaren sarrera ahalbidetzea eta Gazako zerrendaren setioarekin eta, oro har, Palestinako lurraldearen gaineko mehatxuarekin amaitzea» exijitu dute. J. MIRANDA

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus • 107.6 fm •



atariaKO ARKUA
ZURE HERRIKO
JAI EDO KIROL
EKITALDIETAN...

ERABILI NAHI BADUZU ESKATU DOAN:
ataria@ataria.eus • 943 65 56 95

